

laister berri

001

ERREGEEN
ZAMALKADA

002

EKONOMIA SAILA

003

EKONOMIA SAILA

004

UDALTZAINGOA

005

UDAL EUSKALTEGIA

006

UDAL BIBLIOTEKA

007

ANTZERKI GARAIA

008

HAUR ZINEA

009

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

ERREGEEN ZAMALKADA



Urtarrilaren Sean, eguerdiko 12:00etan Loinazko San Martín plazan bilduko dira Errege Magoak ohitura den legez. Izan ere, dagoeneko idatziak ditugun gutunak jaso behar dituzte egun horretan bertan, gero gauean guztion etxeak opariz betetzeko...

Aurtengoan ere, Beasaingo gazte-talde batek eta Txilibutxof taldeak osatzen dute Erregeen Beasaingo prentsa-bulegoa. Bertatik esan digute Errege Magoak oso lanpeturik dabiltzala. Hala eta guztiz ere, aurtengoa izango omen da azken urteetako kabalkadarik handiena eta ikusgarriena. Errege Mago bakoitzak bere karroza izango du eta 150 morroiek babestuko dituzte karroza guztiak. 18:00etan hasiko da kabalkada eta itzulia eman bi-tartean haurrei eta nagusiei gozokiak banatuko dizkiete.

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Inprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lege Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2.
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@clickah.com

Beasaingo
Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale
banatzen ditu
hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko laguntzak familia ugariari.

Laguntzak eskatzeko epea urtarilaren 31n amaitzen da. Eskaera, aldiz, Beasaingo Udaletxeko herritarren informazio eta harrerarako bulegoan aurkeztu behar da bete beharreko inprimakia beteta eta beharrezkoak diren gainerako dokumentuekin 08:00etatik 13:00etara bitartean.

Bete beharrekoak:

- 170.000 €-tik beherako katastroko balioa duen ohiko etxebizitza eduki- gitea (biztanleriaren erroldako datuen arabera);
- Titularraren edo onuradunen ohiko etxebizitzaz gain bestelako ondasun higiezinik ez edukitzea, garaje, ganbara edo titularrak bere lanerako erabil dezakeen lokalaz gain.

Laguntza hau Ondasun higiezinaren gaineko zergari ezargarri izan dakiz- kiekeen beste edozein laguntzarekin bateraezina da..

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Zerga.

Beasaingo Udalak udalerriko zergapekoen eskura jarri du Trakzio Me- kanikodun Ibilgailuen Gaineko Zergaren 2007. urteko erroldako informazio berria. Bakoitzaren ibilgailuaren arloko zergari buruzko informazio hori aztertu nahi duten zergapekoek, Beasaingo Udaleko Zerga-bilketa sailean azter dezakete astelehenetatik ostiraletara 08:30etik 13:30era bitartean.

Oharra: Informazio gehiago nahi izanez gero Udala Ordenantzak kontsulta daitezke www.beasain.net orrian.

ZERGAK ETA TASAK / ERAKUSTEKO EPEAK

Beasaingo Udaleko Ekonomia Sailak udalerriko zergapekoen eskura jarri ditu Tasa eta Zergei buruzko 2007. urteko eroldako informazio berria jendaurrean erakusteko epeak eta hemen azaltzen dira:

Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga,
2007-01-02tik, 2007-01-31ra
Zabor-bilketa,
2007-02-01etik, 2007-02-28ra
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera,
2007-07-01etik, 2007-07-30era
Azoka,
1. hiru hilekoa: 2007-01-02tik, 2007-01-31ra,
2. hiru hilekoa: 2007-04-02tik, 2007-04-30era
3. hiru hilekoa: 2007-07-01etik, 2007-07-30era,
4. hiru hilekoa: 2007-10-01etik, 2007-10-30era,
Ibilgailuen geraleku eta kokagunea,
2007-07-07tik, 2007-07-30era
Kioskoak herri-bidean,
2007-10-01etik, 2007-10-31ra

ZERGAK ETA TASAK / ORDAINKETA-EPEAK

Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga,
2007-02-01etik, 2007-03-31ra,
Zabor-bilketa,
2007-03-01tik 2007-04-30era,
Ondasun Higigaitzen gaineko Zerga,
2007-05-14tik, 2007-06-30era,
arduera Ekonomikoen gaineko Zerga,
2007-10-01etik, 2007-10-10era,
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera,
2007-09-01etik, 2007-10-31ra,
Azoka,
1. hiru hilekoa: 2007-02-02tik, 2007-02-28ra
2. hiru hilekoa: 2007-04-01etik, 2007-05-31ra,
3. hiru hilekoa: 2007-07-01etik, 2007-08-31ra,
4. hiru hilekoa: 2007-09-01etik, 2007-10-31ra,
Ibilgailuen geraleku eta kokagunea,
2007-09-01etik, 2007-10-31ra,
Kioskoak herri-bidean,
2007-10-01etik, 2007-11-30era

Ordainketa-epearen azken eguna jaieguna suertatuz gero, epemuga hurrengo lehenengo lanegunera aldatuko da.

laister berri

UDALTZAINGOA



Beasaingo Udaltzaingoak trafiko-kanpaina berria jarriko du abian puntutako gidabaimen berriaren arloan. Utailean indarrean sartu zen puntutako gidabaimen berriari buruzko kanpainaldiaren inguruko sentiberatze-lanarekin hasiko da. Kanpainak 15 eguneko iraupena izango du eta Udaltzaingoak arau^o@-hauste bat salatzeke garaian, salaketa orriarekin batera aldizkari^o bat emango du puntuak kentzeko arau-hauste kasuak zeintzuk diren berri emanez.

Aipatu egin behar da Beasaingo Udalak "Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal-ordenantza" aldatu berria duela eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren partetik puntuak kentzeko baimena lortu berria duela. Puntuak, zigortze-jardunbidearen ondorioz emandako ebazpena imnoa denean kenduko dira.

Gainera, informazio hau herriko hainbat gunetan emango da, nahiz eta gidariak arau-hausterik ez egin.

Kanpaina honen helburu nagusia, gidariak herri-bideetan duten gidatzeko era hobetzea izango da.

laister berri

UDAL EUSKALTEGIA



UDAL
EUSKALTEGIA



www.udaleuskaltegiak.net

Udal Euskaltegiak otsailetik ekainera bitarteko ikastaroetara gonbidatu nahi ditu euskara ikasi edo hobetu nahi duten guztiak. Astean 4, 8 edo 10 orduko iraupeneko eskolak izango dira eta 1, 2. eta 3. mailako hainbat ikastaro eskaintzen ditu Udal Euskaltegiak.

Mintzamina, idazmena, zuzenketa, beharren egokitzapena, metodologia-orientazioa, ikasprozesuaren jarraipena, euskalduntze-maila guztiak, Administrazioko eta Osakidetzako hizkuntza-eskakizunak, azterketak prestatzeko ikastaroak, EGA prestatzeko ikastaroak, etorkinentzako harrera—ikastaroak eta merkatarienezako ikastaroak dira, beste hainbaten artean, topatzen ditzakegun aukerak.

Informazioa jasotzeko eta matrikulatzeko, jo Beasaingo Udal Euskaltegira, Loinazko San Martin plazara; 943 02 81 00 telefonora deituz edo zuzendaritza@beasain.net posta elektronikora idatziz ere matrikula daiteke.

laister berri

UDAL BIBLIOTEKA

2004. urtearen amaieran Beasaingo Udal Bibliotekak EAEko biblioteken katalogo kolektiboan sartzeko lanak burutu zituen. Erronka berri hark, Absynet programa informatiko berriaren instalazioaren bidez, biblioteken katalogo bateratua irakurleen eskura jartzea lortu zuen, horrela, hobekuntzarako eta garapenerako abantaila izugarria emanez.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren (ELSN) barne dauden udal-liburutegien lankidetzarekin, katalogoa sarean ipini zuen herritarren eskura. Proiektuaren azken xedea Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoetako funts bibliografikoetara, herritarren sarbidea erraztea da.

Katalogo kolektibo hori edonork kontsulta lezake ondorengo webguneetan:

.www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua

.www.beasain.net

Udal Liburutegiko Liburu Katalogoa.

Erabiltzaileak, bilaketa egin ondoren laster jakingo du interesatzen zaion gaiari buruz zenbat dokumentu dauden eta baita zein liburutegietan eskuratu ahal izango dituen ere.

Ez da inongo txartelik behar edozein kontsulta arrunt egin ahal izateko, beraz, edonork erabil ditzake webgune horiek.

HTEren (Herritarraren Txartel Elektronikoa) edo ohiko txartelaren bidez iritsi ahal izango zara behar duzun kudeaketa pertsonalizatua egitera. Bi txartelek, hau da, HTEk eta ohiko txartelak pasahitza behar dute sarean sartu eta zerbitzu pertsonalizatua burutzeko.

Nola eskura dezaket nire txartela?

Liburutegiko bazkide bazara, nahikoa duzu txartel zaharra berritzearekin. Bazkide berri egiteko, berriz, proiektuan parte hartzen duen edozein liburutegitara joan zaitez eta bete ezazu eskaera-orria. Bazkide guztiei pasahitza emango zaie Internet bidez liburuaren berriztapenak, erreserbak, e.a., burutu ahal izateko.

Gainera, Beasaingo Udalak aurkeztu berria duen Herritarraren Txartel Elektronikoa (HTE) ere liburutegiko bazkidetzarako erabil dezakezu. Txartela eragiteko, zatoz Udal Bibliotekara eta eman zure datuak.

Zure liburutegia sarean.

Webgunetik ondorengo lanak egin ahal izango dituzu: maileguak berritu; dokumentuak erreserbatu eta dokumentuen eskaerak egin; erosketen iradokizunak, etab.

Maileguak, mailegualdia bukatu baino bost egun lehenago soilik berritu ahal izango dira.

Dokumentuak eskatzeko garaian, gehienez ere bi dokumenturen eskaera egin ahal izango da, beti ere dokumentu horiek mailegatuta ez badaude. Gogoratu, dokumentuak jasotzeko epea bi egunekoa izango dela.

Erreserbak egiterakoan, mailegatuta dauden bi dokumentu erreserbatu ahal daitezke. Dokumentuak eskuratzeko deia jaso ondoren bi eguneko epea izango duzu maileguan eramateko, epe horretan ez bazara liburutegira agertzen dokumentua jasotzera, beste bazkide bati emango zaio aukera.

El perro del hortelano Lope de Vega-rena.

Urtarrilak 19 ostirala, 22:15ean.
Usurbe Antzokian. Gaztelera.



Diana, Belflor-eko kondesa, konturatu egin da Teodorok Martzela gorteiatzen duela. Jeloskortasunak jota, idazkariaren maitasuna lortzearen, norgehiagoka gogor batean sartzen da egoera oso dibertigarriak eta hamaika nahaspila sortuz. Dianak Teodoro maite duen arren, ezin dio bere grinari libre ihes egiten utzi, beren gizarte-mailak ez baitira berdinak. Estualdi horri amaiera emateko, Teodorok alde egitea erabakitzen du. Baina, Tristan-ek, bere buruargitasunari esker, itenbidea aurkitzen du istorioari amaiera zoriontsua emanez.

Eva vs Eva

Urtarrilak 26, ostirala, 22:15ean.
Usurbe Antzokian. Euskaraz.



Evaizeneko hiru emakume aireportura doaz Parisera doan hegaldi berbera hartzeko asmoz. Halabeharrez, informatikako akats batek hirurentzat txartel bakarra izatea eragiten du. Bat emakume perfektua eta bikaina da, bere bizimodu zehatza atzean utzi nahi du eta luxuz eta grinaz betetako bizitza berri bati ekin nahi dio. Alabaina, bestea zalantziarik, benetan hegazkin horretara igo nahi duen ere ez daki. Azkena, emakume ziurra, dei bakar batez hegazkin bat geraraz dezakeena da eta bere eguneroko bizitzatik ihes egin nahi du. Nork hartuko du?

laister berri

HAUR ZINEA

JULIETA FOKATXO KELEBREA.

Urtarrilak 13, larunbata. 17:00etan.
Usurbe Antzokian. Sarrera 3€.



Julieta fokatxo kelebrea, animaziozko filma da, Romeo eta Julieta istorio klasikoan oinarritutakoa, baina kasu honetan, maitasuna bi fokatxo jostagarriren artean sortuko da. Julietaren aitak bere alabaren eskua itsa-soetako elefante mamutzar Printzeari eskaintzen dio baina Julietaren bihotzak Romeorengatik taupada gogorrak ditu. Romeo eta Julieta berriro ere elkarrekin egon daitezten, Julietak bere heriotzaren itsurak egin beharko ditu, maite ez duen baten besoetatik ihes egiteko.

BETIZU ETA KANGADUKO MISTERIOA.

Urtarrilak 20, larunbata. 17:00etan.
Usurbe Antzokian. Sarrera 3€.



Istripu bat izan ostean, Betizuak basamortu itxurako planeta batean lu-rreratuko dira. Laster konturatuko dira ez daudela bakarrik. Basapiztia maltzur bat planetaren jabe egin da eta bertan dagoen altxorra aurkitu nahi du. Basamortuko biztanle guztiak preso hartu ditu altxorra aurkitzen lagun diezaizoten. Betizuek galtzak bete lan izango dute: basamortuko biztanleei lagunduko diete, altxorra aurkitzen saiatuko dira eta espazio-ontzia konpondu beharko dute, basamortutik irteteko.



Algo parecido a la felicidad.

Urtarrilak 11,
osteguna
Zuzendaria: Bohdan.

Industrializazioaren orbanak agerian dituen txekiar hiri txiki bateko langile^o-auzoko bizilagun-talde baten erradiografia agertzen digu film honek. Maitemindutako bikoteentzako ezinbesteko geltokia den Pragaren atzealdean, postal eta turismo-ibilbide guztietatik kanpo, herrialde oso bat dago. Eta bertan, hustutako lantegi eta zentral nuklearren artean, arkitektura sobietarreko eraikin^o-ilara amaigabeak daude. Eta horien barruan pertsonak bizi dira Bruselan Europako Batasuneko goi-karguek hartzen dituzten erabakien berririk gabe.



La isla de hierro.

Urtarrilak 25,
osteguna
Zuzendaria:
Mohammad Rasoulof.

«Non dago mundua?», galdetzen dio neska batek irakasleari. «Gu ontzi honetan gaude, ontzia itsasoan eta itsasoa munduan. Beraz, gu munduan gaude», erantzun dio irakasleak. Itsasoa zoragamia dela baina ontzia pixkanaka-pixkanaka urperatzen ari dela diktatu die galderaz betetako neska^o-mutikoei. Ontziko kapitainak, aldiz, umeei «mezu positiboak» emateko agintzen dio. Kapitainak agintzen du ontziko alor guztietan eta hainbat familia txiro gizon baten esanaren menpe daude. Hona, Irango errealitatearen metafora.